

BALOREZKO PROPOSAMENA



EGILEAK:
Izar Susperregi
Irati Ugalde
Ekaitz Salaberria
Mikel Moriana

IMEI MUSS taldea gara eta gure helburua berrikuntzak dituen motxila bat egitea da. Gure motxilak masajea emateko aukera izango du, gaur egungo auto batzuetan bezala, eta horrez gain aurikularrak eta txapela ere izango ditu. Berrikuntza hauekin motxila bat erabili ondoren bizkarreko mina saihestu dugu besteak beste.

Gure produktua erosiko balute bezeroek, masajistarenengan gastatzen dutena diru kantitatea murriztuko lukete, motxilak berak masajeak ematen dituela eta beraz, pisua errazago eramaten dute. Gainera txanorik gabeko berokiak eramanda ere, euriaren aurrean erraztasunak izango lituzke, motxilak berak txanoa duelako. Eta haratago joanda, entzungailuak galtzeari eta ondorioz behin eta berriro erosteari utziko liokete, gure motxiletan entzungailuak daudelako.

Nobedadea da, guk dakigunez gure inguruan ez dutelako oraindik horrelako produkturik asmatu, beraz, produktu hau hemen salduko bagenu, jende gehiagoren eskura egongo litzake.

Merkatuak ondo erantzungo balu motxilak pertsonalizatzek aukera ere emango genuke; kolorea, tamaina, txanoa eduki edo ez... aukeratzeko aukera izango luke bezeroak. Modu horretara bakoitzak benetan gustatzen zaion motxila bat edukiko du eta egunerokoan erabiltzeko errazagoa izango da.

Horretaz gain jendearen egunerokoan lana erraztuko luke, esan bezala masajistarenera joanaldiak murriztuko lirateke eta ondorioz denbora gehiago izango lukete. Gainera, motxilan pisu gehiago eramateko aukera izango lukete, izan ere, masajeak ematean pisu gutxiago eramaten denaren sentrazioa ematen du.

Balore kualitatiboari dagokionez, jendearen gustutara bat etorriko lirateke, eta esan bezala, dena ondo joango balitz motxilak, kolorea eta tamaina aukeratzeko aukera izango dute bezeroek besteak beste. Ondorioz motxilak beti modan egongo dira, bakoitzak nahi duena egiten diolako.

Balore kuantitatiboari dagokionez, prezio onargarriak erabiliko genituzke, hau da, kontuan hartu behar da motxila simple bat baino zerbait gehiago dela, produktu bakar batean hainbat gauza dituelako. Baina ala ere, ulertzen dugu jendea ez dela prest egongo prezio oso altuak ordaintzera.

Jarraitzeko gure produktuari eskuragarritasun handia emango diogu, hasiera denda fisikoan saldu arren ondoren internet bidez erosteko aukerara zabaldu nahi dugulako. Denda fisikoari dagokionez, pentsatu dugu gure denda fisikoa izan beharrean, hoberena beste denda batzuekin hitz egite eta beren dendetan saltzea izango litzatekeela; Forum Sport eta Decathlon bezalako dendetan.

Bukatzeko, argi dago erabilerraztasun handia duela gure produktuak, motxila normal bat delako, baina botoi bat izango du masajeak emateko, eta entzungailuak bluetooth bidez joango dira.

